



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

## BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK GORABIDE OMENDU DABE BERE HIRUROGEIGARREN URTEURRENEAN

- **Gernikako Batzar Etxean egindako harreran Ana Otadui Biteri Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakariak alkartearen gizarte-lana eskertu dau**

(Gernikan, 2022ko maiatzaren 11n). Bizkaiko Batzar Nagusiek omenaldia egin deutsee gaur Gernikako Batzar Etxean Gorabide osatzen daberen familia, erabiltzaile, profesional eta boluntario guztiei, alkartearen hirurogeigarren urteurrena dala-eta. Ana Otadui Biteri Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakaria eta Mahaiko ordezkariak izan dira Batzar Nagusien egoitzan egindako aintzatespen ekitaldian. Bertan, kolektibo horretako berrogeta hamar bat kide be egon dira, Susana Gorbeña Etxebarria presidentea buru zala.

Mende erdi baino gehiagoko bizitzan, Gorabide funtsezko erakundea izan da adimen-desgaitasuna daberen pertsonen eskubideak defendiduteko, eta kolektibo horren ahalduntzea lortu dau. *“Irmotasunez eta denpora guztian lan eginez lortu dozue kontzientzia publikoa biztea adimen-desgaitasuna daberen pertsonen bizitzari eta familia-eta lan-arazoei buruz”* eta horregaz, *“garrantzi handiko aldaketa sozialak”* lortu dirala azpimarratu dau Otadui, eta *“lanean jarraitzera adimen-desgaitasuna daberen pertsonak guztiz gizarteratu daitezkan”* animau ditu alkarte horren inguruan dagozan pertsona guztiak.

Beste alde batetik, Gorbeñak, Bizkaiko parlamentuak emondako harreraren ostean *“bihotz-bihotzez”* eskertuta, Gorabideren eta lurraldearen artean dagoan lotura *“sendoa”* gogorarazo dau. *“Izan be, familien alkarte aitzindaria gara lurraldeko adimen-desgaitasunaren mobimenduan. 4.900 familia erabiltzaile, 465 profesional eta 270 boluntario baino gehiagogaz, adimen-desgaitasuna daberen pertsonen bizi-kalitatea hobetzen eta pertsona horreek guztiz gizarteratzen laguntzen saiatzen gara”*, esan dau. Alkartearen helburuen artean *“adimen-desgaitasuna daberen pertsonak egin leikien ekarpen guztiari balioa emotea dago, gizarte hobe, bidezkoago eta solidarioagorantz eboluzionetako, etorkizuneko Bizkaia eregiteko eta sendotzeko hain beharrezkoak eta ezinbestekoak diran balioak finkatuz, horreen artean aniztasuna, enpatia, ekidadea eta inklusio osoa”*.

Itxaso Ormaza Gorabideren erabiltzailea, bere aldetik, eskertuta agertu da bizkaitar guztien etxean egin jaken harrerea dala-eta. *“Ilusino handia egiten deusku 60. urteurrena ospatzeko hemen egoteak. Eskerrik asko gu hartzeagaitik. Adimen-desgaitasuna dogun pertsonok laguntzak baino ez doguz behar besteen bardinak*



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

*izateko*”, esan dau, eta guztion artean *“askoz gizarte hobea lortzen ahalegindu behar gara”* azpimarratu dau.

Berbaldien aurretik, Batzar Nagusietako lehendakariak, Gorabideko berrogeta hamar kide ingurugaz, horreen artean Txema Franco zuzendari gerentea, Gernikako Batzar Etxeak gordetzen dituan altxorrak ezagutzeko ibilbidea egin dau. Otadui konbidauakaz –gehienak Gernikako zentroen erabiltzaileak– batera ibili da Batzar Nagusien egoitzaren kanpokaldetik eta barrukaldetik. Konbidauak arreta handiz jarraitu ditue hainbat puntu interesgarritan emondako azalpenak: Gernikako Arbolan, Beirateen Aretoan edo Osoko Bilkuren Aretoan.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA HOMENAJEAN A GORABIDE EN SU SESENTA ANIVERSARIO

- **La Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui Biteri, agradece la labor social de la asociación en una recepción en la Casa de Juntas de Gernika.**

(Gernika, a 11 de mayo de 2022). Las Juntas Generales de Bizkaia han rendido hoy, en la Casa de Juntas de Gernika, un homenaje a todas las familias, personas usuarias, profesionales y voluntariado que forman parte de Gorabide con motivo de su sesenta aniversario. La presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui Biteri y representantes de la Mesa, han asistido a un acto de reconocimiento en el Parlamento foral al que ha asistido un grupo con medio centenar de integrantes de este colectivo social, encabezado por su presidenta Susana Gorbeña Etxebarria.

A lo largo de más de medio siglo de vida, Gorabide ha sido una entidad clave en la defensa de los derechos de las personas con discapacidad intelectual, logrando el empoderamiento de este colectivo. *“Con vuestra tenacidad y trabajo constante habéis logrado despertar la conciencia pública sobre la vida y los problemas familiares y laborales”* de este colectivo y, con ello, *“cambios sociales muy importantes”*, ha destacado Otadui, quien ha animado a todas las personas que están en la órbita de esta asociación *“a seguir trabajando por conseguir esa plena inclusión de las personas con discapacidad intelectual.”*

Por su parte, Gorbeña, agradecida *“bihotz-bihotzez”* tras la acogida dispensada por el Parlamento de Bizkaia, ha recordado el *“fuerte”* vínculo existente entre Gorabide y el territorio. *“No por menos somos la asociación de familias pionera del movimiento de la discapacidad intelectual en el territorio. Con más de 4.900 familias usuarias, 465 profesionales y 270 personas voluntarias, intentamos contribuir a mejorar la calidad de vida de las personas con discapacidad intelectual y a su plena inclusión”*, ha dicho. Entre sus objetivos, está el de *“poner en valor todo lo que las personas con discapacidad intelectual pueden aportar, de manera que evolucionemos hacia una sociedad mejor, más justa y más solidaria, afianzando valores tan necesarios e imprescindibles para construir y consolidar la Bizkaia del futuro, como la diversidad, la empatía, la equidad y la plena inclusión”*.

Por su parte, Itxaso Ormaza, usuaria de Gorabide, se ha mostrado también agradecida de la recepción en la casa de todos y todas las vizcaínas. *“Nos hace mucha ilusión*



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

*estar aquí para celebrar nuestro 60 aniversario. Gracias por recibirnos. Las personas con discapacidad intelectual sólo necesitamos apoyos para ser iguales que el resto de las personas”, ha dicho, insistiendo en la idea de que es necesario esforzarse entre todos “por conseguir que la sociedad sea mucho mejor”.*

Previamente a las intervenciones, la presidenta de las Juntas Generales ha recorrido con el medio centenar de integrantes de Gorabide que han acudido a la cita, entre los que se encontraba también su director gerente, Txema Franco, a conocer los tesoros que esconde la Casa de Juntas de Gernika. Otadui ha acompañado a los invitados e invitadas –la mayoría de centros cercanos a la villa foral- por los exteriores y el interior del Parlamento de Bizkaia, siguiendo con atención las explicaciones ofrecidas en varios puntos de interés: el Árbol de Gernika, la Sala de la Vidriera o el Salón de Plenos.